

ITSASERTZA

BIZKAIA



B•3 Itsasertzeko Punta Galea–Barrika zatia

Bilboko portuaren eta Barrikaren artean elkarren ondoan dauden itsaslabar, hondartza eta badiak osatutako kostaldeko zati eder bat zabaltzen da, itsasaldearen gaineko ikuspegi bikainekin.

Urteak dira gune horretako artadiak desagertu zirela, baina harkaitzetan gazitasun—baldintza gogorretara eta itsasoko haizeetara egokitutako flora interesgarri bat dago.

Gaur egun, inguru guztiak gizakiaren presio handia jasaten du, batez ere aisialdiarekin erlazionaturik (golf-zelaiak, hondartzak, urbanizazioak, etab.), baina halere itsasoko hegaztientzako atsedeneku izaten jarraitzen du.



B•4 Pobeñako padura eta Arena hondartza

Barbadun ibaia Arena hondartzan itsasoratzen da, jalkitze—hareatzetako gune batek eta ur gezak eta gaziak nahasten dituen padura—eremu batek osatutako itsasadar txiki batean.

Hezegune horrek baldintza gazietara egokitutako landaredia espezializatua enklabe batzuk ditu oraindik, eta hauek aterpea eskaintzen diete uretako hegazti askori, haien migrazioko eta negupasako geldialdietan.

Enklabe baliagarri hori iraganean padura—eremu garrantzitsua izan zenaren eta orain, petrolio—findegi baten instalazioagatik, erabat hondatuta dagoenaren lekuko da. Espazio horren aberastasun ekologikoak arrisku larrian jarraitzen du faktore askoren ondorioz, komunikazio—bide garrantzitsuek, hondartzarako bisitari asko hartzen dituzten hirigune handiek, industrialdeek, isuriek eta hondakinek inguratzen baitute. Hori guztia dela eta, premiazkoa da gune hori kontserbatu eta leheneratzeko jarduketak abiaraztea.

B•5 Itsasertzeko Armintza–Bakio zatia

Armintza eta Bakioaren artean malda handiak dituen itsasertzeko lerroa dago, Jata mendiaren inguruetatik itsasora erortzen diren itsaslabar sakonak dituena. Eremu horretako jatorrizko landaredia ia guztiz

desagertu da eta haren ordeztu pinuekin eta eukaliptoekin berritu dira basoak. Halere, ibarretan eta sakonuneetan bizirik dirau hasierako basoak eta bertan biltzen dira klima subtropikal batekoak diren eta gure latitudeetan benetako bitxikeria diren garo—mota batzuk.

Itsasoko hegaztiak atsedene hartzen dute duela urte batzuk Lemoizeko Zentral Nuklearra hornitzeko eraiki zen urtegi artifizialean; izan ere, zentralaren hondakinak dira gune horretako ingurumenak eta paisaiak jasandako eragin nagusia.